



AGINDUA, 2022KO UZTAILAREN 14KOA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, HASIERA EMATEN DIONA SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZEI BURUZKO DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI

Familiak babesteko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen helburua (aurrerantzean, Familiak babesteko Legea) familiei babes, arreta eta laguntza ematea da. Horretarako, autonomia-erkidegoan familien alde indarrean dauden neurriak osotasun koherente baten itzalpean antolatzen ditu, eta beste hainbat laguntza-neurri berri ere arautu. Familiaren eta bertako kideen ongizatea eta bizikaltatea hobetzeko helburuarekin, aipatu Legeak hainbat laguntza ekonomiko zuzen dakarzkie seme-alabak dituzten familiei, eta hauxe ezartzen du: Eusko Jaurlaritzak bata bestearen atzetik onartutako familiei laguntzeko erakundearteko planen esparruan, euskal administrazio publikoak progresiboki zabalduz joango dira ardurapeko seme-alaba adingabeengatik ematen diren zuzeneko dirulaguntzak, 2020. urtean Europar Batasunaren mailara heltzeko.

Azken urteetan, Eustaten datuek agerian uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoan demografiaren joera oso kezagarria dela:

- 2017an, EAeko jaiotza-tasa Europar Batasunaren batezbestekoa baina nabarmen baxuagoa zen: 7,8 jaiotza erregistratzen ziren 1.000 biztanleko, inguru horretako herrialdeetako 9,9ren aldean.
- Hamar urtetan, EAEn jaiotza-tasa % 3,1 jaitsi da, 2011n % 10,0 izatetik 2021ean % 6,9 izatera.

Gainera, azaldutako egoera demografikoa larriagotu egin da ziurgabetasuneko faktore berriak agertzean, esaterako COVID-19aren pandemia edo Ukrainako inbasioaren eraginak: Euskal Autonomia Erkidegoan, 2021eko jaiotzen behin-behineko zenbatekoa 14.247koa izan zen, hau da, 2020. urtean baino % 3,3 baxuagoa.

Eusko Legebiltzarrak 2020ko urriaren 29ko osoko bilkuran legez besteko proposamen bat onartu zuen. Bertan, beharrezkotzat jotzen zen erronka demografikoaren gaineko plan bat, sailartekoa eta erakundeartekoa, eta zeharkako neurriak ezartzen dituen. Horretarako, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio honako gai hauek sustatu ditzala, gainerako erakundeekin lankidetzan: jaiotza-tasa sustatzeko politika publikoak, lana eta familia uztartzeko laguntzak, zahartze aktiboa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna, eta landa-eremuko despopulazioaren kontrako borroka, besteak beste.

2022ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak oinarritzko azterketa bat argitaratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko

biztanleek erronka demografikoaren aurrean dituzten pertzepzio eta jarrerei buruz. Lan horren ondorioz esanguratsuenak honako hauek dira:

- inkesta bete zutenen % 52k baieztatzen dute eduki nahiko lituzketen umeak baino gutxiago eduki dituztela. 18 eta 29 urte artean, ehuneko hori % 81era igotzen da, nahiz eta horietatik gutxienez % 54k espero duten etorkizunean seme-alaba gehiago edukitzea.
- inkesta bete duten pertsonen batezbestekoaren ustez, seme-alaben kopuru ideala 2,2koa da emakumeko. Hala ere, tasa hori EAEn 1,28 seme-alabakoa da.
- inkesta beste duten gehienek adierazi zuten arrazoi ekonomikoak zirela nahi baino ume gutxiago edukitzeko arrazoi nagusia.

Bestalde, 2022ko maiatzaren 18an, Eusko Legebiltzarrak, 74 ebazpen onartu zituen *“hamarkada batez indarrean egongo den Estrategia Demografikoko zuzendaritza, lehentasun eta ekimen garrantzitsuenak legebiltzar-taldearen artean eztabaidatu, partekatu eta zehazteko”* osoko bilkura monografikoan. Bilkura hartan, lehendakariak hilean 200 euroko laguntza zuzena iragarri zuen kargura dagoen hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Era berean, euskal gizarteak Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen azterketan antzeman dituen arazoei aurre egite aldera, 2022ko ekainaren 21ean Gobernu Kontseiluak Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia onartu zuen. Estrategia horrek kontuan hartzen du orain arte euskal erakundeek eremu honetan egin duten ibilbidea: batetik, Familien eta Haurren Aldeko Euskal Ituna, Familiak Babesteko Erakundearteko IV. Planean (2018-2022) gauzatu zena – oraindik azken ebaluazioa egiteke –, eta, bestetik, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programa, zeinak erronka demografikoa herrialdeko hamar helburuen artean ezartzen baitu eta *II. ardatza. Pertsonak* izenekoaren barruan Gobernu Programaren oinarritzko zutabe moduan adierazten baitu seme-alabak dituzten familiak babesteko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala garatzea.

Estrategiak testuinguru europarrean oraintsu hartutako neurriak aztertzen ditu: gainbehera demografikoari erantzutean emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeak Frantzia eta Suedia dira. Biek inbertsio handiak egin dituzte seme-alaben hazkundera babesteko politiketan, eta ume txikiak dituzten familiei laguntza luzeak eman dizkiete.

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiako helburu estrategikoen barruan, familia-proiektuak eraikitzekeo babesak eta jaiotze-tasarako laguntzak diseinatu beharra ezartzen da, gure inguruan emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzeko. Hartara, joera aldatu nahi da: gainbehera demografikoan dagoen eszenatokitik susperraldi demografikoko eszenatokira.

Horretarako, strategiaren arabera epe laburreko eragina duen jarduera bat honako hau da: hilean 200 euroko laguntza zuzena ezartzea kargurako hiru urtera arteko seme-alaba bakoitzeko. Laguntza hau bateragarria izango da 4 eta

7 urteen artean familia ugariei ematen zaizkien prestazioekin, egungo zerga-kenkariekin eta DSBEko seme-alabako laguntzekin. Gainera, neurri hau bat dator “lehen 1.000 egunetako programekin”. UNICEFek sustatutako programa horien arabera, administrazio publikoek haurraren lehen hiru urteetara bideratu behar dituzte beren inbertsio nagusiak, etapa hori oso garrantzitsua delako beren etorkizunerako: ume batek aldi horretan hazkuntza ona jasotzen badu, aukera gehiago dauka bizirauteko, modu osasuntsuan hazteko, eta bere pentsamendua, ahozכותasuna, emozionaltasuna eta gaitasun sozialak guztiz garatzeko.

Ondorio horietarako, Agindu honen bidez xedatzen da has dadila administrazio-prozedura, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak arautzen dituen dekretua egiteko behar dena. Horrenbestez, beharrezko diren azterketa eta izapideak egin beharko dira.

I.– Xedea eta prozeduraren hasiera agintzeko eskumena

Agindu honen xedea da agintzea dagokion prozedura hastea “seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko Dekretu-proiektua” egiteko.

Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak (Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoak; aurrerantzean, abenduaren 22ko 8/2003 Legea) 4.1 artikuluan xedatzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko buruaren aginduz hasiko da. Halaber, Lege horren 5.1 artikulua ezartzen ditu hasteko agindu horrek bete beharreko eskakizunak eta gutxieneko edukiak.

Horiek horrela, eta kontuan hartuta zer xedatzen duen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) 13.1 artikuluan, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkio, beste zenbait egiteko eta jarduera-arlo batzuen artean, familia babestea eta familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzea, eta eskumen-esparru horretan kokatzen dira, hain zuzen ere, Dekretu-proiektu honen xedea osatzen duten berezko gaiak.

Aurreko horren ildo beretik, urtarrilaren 17ko 12/2021 Dekretuak (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak; aurrerantzean, 12/2021 Dekretua) 17. artikuluan ezartzen duenez, Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren barneko Familia eta Haurren Zuzendaritzari dagokio honako eginkizun hauek betetzea, besteak beste:

- Politika publikoetan familia- eta komunitate-ikuspegia sustatzea, eta honako hauei buruzko politikak planifikatzea, koordinatzea eta oro har ebaluatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan: familia, haurtzarora eta nerabezarora.
- Erregelamendu bidezko garapeneko araudiari buruzko analisiak eta proposamenak lantzea, sailaren eskumenen eremuan eta berauei

buruzko EAEko legediarekin bat etorriz: familia-laguntza; haurtzaroa eta nerabezaroa.

- Familia-politikaren arloko zuzeneko ekintzaren prestazioak eta jarduerak kudeatzea, abenduaren 12ko 13/2008 Legean ezarritako moduan.

Bestalde, goian aipatutako 12/2021 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari dagokio ekainaren 30eko 7/1981 Legeak (Jaurlaritzari buruzkoak; aurrerantzean, Jaurlaritzaren Legea) 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak baliatzea, bai eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere, sail horri esleitutako egiteko eta jardun-arloen esparruan.

Hori guztia ikusita, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eman du prozedura hasteko agindu hau.

II.– Dekretu-proiektuaren helburua

“Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko Dekretu-proiektuaren” helburua da familiei babes ekonomiko iraunkorra eta iraupeneko ematea, hartara baldintza positiboko esparru bat sor dadin familiek nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten, nahi dutenean.

Gainera, haur ororen lehen 1.000 egunek daukaten garrantzia bereziki azpimarratu nahi da: 0-3 urteko aldian, umeak azkarrago garatzen dira eta ikasten dute, baldin eta afektua, ulermena, zaintza eta estimulazioa jasotzen badituzte inguru aberasgarri batean. Eusko Jaurlaritzako laguntza ekonomikoek hazkuntzarako egokia den ekosistema bat sustatu nahi dute, epe laburrean – 2025– joera aldatzeko: gainbehera demografikoan dagoen eszenatokitik susperraldi demografikoko eszenatokira.

Epe luzean –2030– helburua jaiotze-tasa % 15 igotzea da.

Gaur egun, laguntzak martxoaren 17ko 30/2015 Dekretuan (seme-alabak dituzten familiei laguntzeko dirulaguntzak arautzen dituen; aurrerantzean, 30/2015 Dekretua) arautzen dira. Dekretu hori seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretua aldatzen duen uztailaren 30eko 121/2018 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Indarreko araudian, diruz laguntzen dira beren kargura seme-alabak dituzten familiak, seme-alaba horiek familian duten ordenaren arabera. Halaber, laguntzaren urteko zenbatekoa familia-errenta estandarizatuaren arabera izaten da.

Lehen seme-alabagatik, jaiotzaren urtean kobratzen da; bigarren seme-alabagatik, laguntza 3 urtez kobratzen da, haurrak bi urte betetzen dituen arte; eta hirugarren umeagatik edo hortik aurrerakoengatik, laguntza 7 urtez kobratzen da, haurrak 6 urte betetzen dituen arte. Familiek urtero aurkeztu behar dute horretarako laguntza-eskaria.



Dirulaguntza sortzen duen seme-alabari mendekotasun-egoera edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortzen bazaio abenduaren 14ko 39/2006 Legeari (Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzekoari) eta hura garatzen duen araudiari jarraikiz, laguntza bikoiztu egiten da.

Erditze edo adopzio anizkoitzen eta nazioarteko adopzioen kasuan, ordainketa bakarreko laguntza aurreikusten da. Haren zenbatekoa zehazteko, honako eragiketa hau egingo da: 2.000 (jaso daitekeen gutxieneko kopurua, eurotan) bider erditze edo adopzioko seme-alaben kopurua ken bat (adopzio edo erditze anizkoitzen kasuan) eta bider familia-errenta estandarizatuari dagokion haztapen-faktorea.

Izapidetuko den dekretu-proiektuan seme-alabak dituzten familientzako jasotzen den laguntza-sistemak egoera aldatu nahi du. Horretarako, elementurik esanguratsuenak honako hauek liriateke, funtsean:

- Urteko ordainketen eta eskarien egungo sistema aldatzea –famiaren diru-sarrera fiskalen arabera laguntzak zehazteko formula konplexua–, eta, horren ordez, hileko ordainketen sistema bat ezartzea, praktika europarrarekin sintonia handiagoa duena eta seme-alaben laguntzen filosofia eta helburuarekin hain handiagoan bat egiten duena, hau da, umeen zaintzak eta mantenuak sortzen dituen behar ekonomikoei –luze jotzen dute– denboran modu iraunkorrean aurre egiten diena.
- Eskari bakar bat egitea 0-3 urteko aldian eta, hirugarren seme-alaben eta ondorengoen kasuan, beste eskari bat 0-7 urteko aldian.
- Laguntzaren zenbatekoa zehaztea, errenta-maila kontuan hartu gabe.
- Nazioarteko adopzioaren eta erditze edo adopzio anizkoitzaren ziozko aparteko laguntzek bere horretan jarraitzen dute, bai eta laguntzen izaera bikoitzak ere adingabeak desgaitasuna duenean.

III.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Eskumenaren lege-esparruak bat egiten du Espainiako Konstituzioaren 39. artikuluekin, xedatzen baitu agintari publikoen betebeharra dela *“famiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa”* bermatzea, eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutua onartzen duen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoarekin (aurrerantzean, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua), zehazki 9. artikuluekin, honako hau xedatzen baitu: Euskal herri-agintek, beren eskumenen esparruan, gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.

Beste oinarrietako bat da Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10. artikulua, ezartzen baitu autonomia-erkidegoak eskumen osoa duela honako gai hauetan: *“gizarte-laguntza”* eta *“komunitatearen garapena, emakumeen egoera, eta gaur, gazte eta adinekoen aldeko politika”*.

Familiak Babesteko Legearen II. Tituluak, familiei babesa, arreta eta laguntza emateko neurriei buruzkoak, I. kapituluaren arautzen dituzten seme-alabak kargura dituzten familiak babesteko laguntza ekonomikoak, eskubide subjektibo gisa eratuta. Horien helburua da, hain zuzen ere, seme-alaben mantenuarekin eta zaintzarekin lotutako beharrian ekonomikoak artatzea, Eusko Jaurlaritzari dagokiolarik gaia arautu eta kudeatzea.

Bestalde, Agindu honen 1. artikuluan adierazi den eran, lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) 13.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari dagozkion funtzio eta jarduketarako bat da familiei babesa ematea eta lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzea. Eta, zehazki, sail horren barruan Familia eta Haurren Zuzendaritzari (Gizarte Politiketako Sailburuordetza) dagokio erregelamendu-garapeneko araudiari buruzko proposamenak lantzea, familien laguntzaren alorrean, sailaren eskumenen eremuan eta gai horri buruzko EAEko legediarekin bat etorriz.

IV.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina

Proiektatutako laguntza-sistemak testuingurua aldatzen du, egungo laguntza-sistemari dagokionez. Ondorioz, beharrezkoa da martxoaren 17ko 30/2015 Dekretua (seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak arautzen dituen) indargabetzea.

Bestalde, azaldu den bezala, erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategiak epe laburreko eragina duen jarduerarako gisa jasotzen du kargurako seme-alaben ziozko laguntza zuzenak areagotzea, 2023an martxan jarriko den egutegiaren bidez.

Hori dela eta, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko zuzendaritza politikoak emandako bidea, lehendakariak 2022ko maiatzaren 18an erronka demografikoari buruzko osoko bilkura monografikoan adierazitakoa, honako hau da: neurri horrek ondorioak izango ditu 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta, beraz, beharrezkoa da prozedura hau izapidetzean premiazkoa dela adieraztea.

Era berean, beharrezkoa izango da araudiaren trantsizio-sistema bat antolatzea, 2023. urtean familiek ez ditzaten aldi berean kobratu indargabetzen den Dekretuaren laguntzak eta izapidetzen hasiko den Dekretuan aurreikusitako laguntza (200 euro hilean 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera).

V.- Eragina aurrekontuetan

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko Dekretu-proiektuak eragin ekonomikoa izango du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan, eta txosten espezifikoan ebaluatuko da.

VI.- Seme-alabak dituzten familientzako laguntzen Dekretuaren edukia

Proiektatutako dekretuan gai hauek sartuko dira:

- Hilean 200 euroko laguntza, haurrak hiru urte bete arte. Familiak eskabide bakarra aurkeztuko du laguntzaren hiru urteetarako.
- Hirugarren seme-alaben eta hurrengo kasuan, hilean 100 euroko laguntza, haurrak zazpi urte bete arte. Familiak eskabide bakarra aurkeztuko du laguntzaren lau urteetarako.
- Seme-alabari mendekotasun-egoera edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna aitortzen bazaio abenduaren 14ko 39/2006 Legeari (Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzekoari) jarraikiz, laguntza bikoiztu egiten da.
- Erditze eta adopzio anizkoitzen eta nazioarteko adopzioen kasuan, laguntza bakarra aurreikusiko da, erditze batean jaiotzen diren edo adoptatzen diren seme-alaben kopuruaren arabera.

Era berean, laguntza-eskaria eta espedienteen kudeaketa sinplifikatu eta modernizatu egingo dira, dauden aukera teknikoen neurrian, administrazio publikoak bete beharreko eraginkortasun- eta efizientzia-helburuak lortzeko.

VII.- Egin beharreko izapideak eta txostenak

Honako izapide eta txosten hauek egin behar dira, hasiera batean, aurreikusitako dekretu-proiektua lantzeko eta onesteko:

1.- Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiak, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituenak, lehen atalean (1. puntua) xedatu duenaren arabera, sustatutako araugintza-ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari gainerako sailei eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie, hasteko agindu hau ezagutza partekatuko LEGESAREA lankidetzarako gunean argitaratuz, hemen: <http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>.

2.- Dekretu-proiektuaren testua idazteko, Agindu honen edukia hartuko da aintzat, eta kontuan hartuko dira helburuetara ondoen egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkontasuna bermatzeko komenigarritzat jotzen diren kontsulten emaitzak ere.

Gobernu Kontseiluak, 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran, arau-xedapen orokorrak, bereziki EAeko Administrazio Orokorraren esparruan sustatzen direnak, izapidetzeko jarraibideak onartzeko hartutako Erabakiak (2017ko abenduaren 15eko EHAA argitaratu zen, 238. zenbakidunean) adierazten du zer protokolo erabili behar den urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak; aurrerantzean, APAPEL) 133.1 artikuluan xedatutako jendaurreko kontsulta-izapidea betetzeko. Horretarako, hiru jarduketara hauek gauzatu behar dira:

- Iragarki bat jartzea EAEko administrazio publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, herritarrei berriaz eskatuta beren iritzia emateko araua onartzeko beharraz eta egokitasunaz, arauaren helburuez, konpondu nahi diren arazoez eta izan daitezkeen aukera arautzaileez eta ez-arautzaileez.
- Informazio bera Legegunean erakustea, bai eta, geroago, jasoko diren ekarpenak erakustea ere.
- Argitaratutako informazioa Irekia gobernu-plataforma irekira eramatea.

3.– Beste alde batetik, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak aldez aurretik onetsi behar duen arau-ekimenaren azken testua bi hizkuntzatan idatzi beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz), lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu diren xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartu zituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatuta dagoenaren arabera (erabaki horrek abenduaren 22ko 8/2003 Legea osatzen du).

Horretarako, eta, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak onetsi behar duen testuaren euskarazko bertsioa zehatza dela eta gaztelaniazkoaren baliokidea –eta alderantziz– dela bermatzeko, euskarazko bertsioa Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak idatziko du.

Xedapenaren azken testua euskaraz zein gaztelaniaz idatzi eta gero, eta kontuan hartuz Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali beharko zaiola dekretu-proiektua Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren aldez aurreko oniritzia eduki eta gero, aldez aurretiko onespina duen xedapenaren testua Eusko Legebiltzarrera ere bidaliko da, Jaurlaritzaren Legearen 56.1 artikulua aplikatuz –Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketaren arabera–.

4.– Aldez aurretik onesteko agindua eta Dekretu-proiektuaren testua LEGESAREA ezagutza partekatuko lankidetzaren espazioan argitaratuko dira (<http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>), Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehen zenbakian (2. puntua) xedatuta dagoenaren arabera.

5.– Generoaren arabeko eragina aldez aurretik ebaluatzeko txostena sartuko da espedientean, Dekretu-proiektua egiteko organo arduradunak egina, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak) 18. artikulutik 20. artikulura bitartean xedatutakoa betez; eta, zehazki, aipatutako Legearen 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenak ezarritakoan oinarrituz, hark xedatzen baitu Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko osoko bilkuran hartutako Erabakia, «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa (eta dagozkion eranskinak) gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzkoa» (2012ko

irailaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 187. zenbakidunean) argitara emango dela.

6.– Ekainaren 28ko 16/2012 Legeak (Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoak) 6.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko, enpresak sortzean, abian jartzean eta haien funtzionamenduan arau-proiektuak eduki dezakeen inpaktuari buruzko ebaluazio-txostena txertatuko da espedientean.

7.– Nolanahi ere, saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak txosten juridiko bat egingo du, proiektuaren funts objektiboa aztertuko duena, bai eta edukia Legearekin eta Zuzenbidearekin bat datorren eta arau-teknikaren jarraibideak bete diren ere, hori guztia abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan, ekainaren 2ko 7/2016 Legearen (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeakoaren) 4. artikuluan eta 12/2021 Dekretuaren 9.1 artikuluko h) letran xedatuta dagoenaren arabera.

8.– Entzunaldia, informazio publikoa eta dekretu-proiektuaren eraginpean dauden autonomia-erkidegoko gainerako administrazioek parte hartzeko eta haiei kontsulta egiteko izapideak egingo dira, haiei guztiei Dekretu-proiektuaren berri emanez, hurrenez hurren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikulua aplikatzeko.

Alde batetik, eta xedapenaren zer-nolakoa kontuan hartuta, egin beharreko testua jendaurrean jarriko da. Horretarako, eta abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.4 artikulua xedatutakoa aplikatzeko, proiektua jendaurrean jarriko da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

Gainera, entzunaldia egingo zaie Arartekoari eta Familien Euskal Behatokiari, eta Dekretu-proiektuaren testua igorriko zaie.

Beste alde batetik, eta aldi berean, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako parte-hartze eta kontsulta-izapidea beteko da. Zehazki, Dekretu-proiektua Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurari helaraziko zaio, kontsulta-organoa baita, eta bertan ordezkaturik baitaude Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, familien interesak ordezkatzeko edo defendatzeko dituzten erakundeak, sindikatuak, enpresa-erakundeak eta gizarte-zerbitzuen esparruan diharduten profesionalen erakundeak. Kontseiluak aipaturiko hiru erakundemailen arteko beharrezko koordinazioa eta lankidetzaren antolatzeaz gain, administrazio publikoetatik kanpo dauden erakundeak eta pertsonak parte hartzeko bidea ematen du.

9.– Espedientera sartuko dira honako hauek: hasteko agindua eta egokiak diren agiri guztiak, bideratutako azterlanak eta kontsultak, prozedura osoari buruzko memoria laburra eta memoria ekonomikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 eta 10.3 artikuluetan ezarritako edukiarekin. Hartara, Gobernu Kontseiluak, azkenik, lege-aurreproiektua onartuko du, aipaturiko Legearen 12. artikuluan ezarritako baldintzetan.

10.– Prozedura bideratzean, adierazitakoez gain, **nahitaezko txostenak** eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean

eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta:

- a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, otsailaren 5eko 2/1988 Legeak (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzkoak) 3. artikuluko d) letran jasotakoaren arabera, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak) 21. artikuluan xedatutakoarekin bat.
- b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 14.2 artikulua l) letran ezarritakoaren arabera egina, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak (prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak) 2.1 artikuluan ezartzen duenari dagokionez.
- c) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, bat etorrira urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 12. artikuluan ezarritakoarekin.
- d) Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak (Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak) 6.1 artikuluan xedatua oinarri hartuta, urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) 17.1 a) artikuluan ezartzen duenaz den bezainbatean.
- e) Familia eta Haurren Zuzendaritzaren txostena, proiektuan dagoen arauak haur eta nerabeen arloan izango duen eragina aztertzen duena.
- f) Familia eta Haurren Zuzendaritzaren txostena, proiektuan dagoen arauak familien arloan izango duen eragina aztertzen duena.
- g) Familiaren Euskal Kontseiluaren txostena, apirilaren 17ko 53/2012 Dekretuak (Familiaren Euskal Kontseiluarenak) 4. artikuluko a) idatz-zatia ezartzen duenaren arabera.
- h) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, maiatzaren 17ko 8/2012 Legeak (Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearenak) 3.1. b) artikuluan ezartzen duena aintzat hartuta.
- i) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, 2021eko otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuak (Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) 10. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta, 1994ko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak) 25. artikulua inguruan ezarritakoarekin bat.

11.– Azkenik, Dekretu-proiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari aurkeztu beharko zaio, irizpena eman dezan, azaroaren 24ko 9/2004 Legeak (Euskadiko

Aholku Batzorde Juridikoari buruzkoak) 3.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan, eta Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikulua betez –Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketaren arabera–: «Era berean, Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeek dokumentazio hori ezagut dezaten».

12.– «Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko Dekretu-proiektua» egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazioa «TRAMITAGUNE» aplikazio informatikoko gardentasun-gunean argitaratu behar da, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) 7. artikuluan xedatzen duenarekin bat.

VIII.- Proiektua egitea eta izapidetzea

Familia eta Haurren Zuzendaritzari dagokio Dekretu-proiektua egitea, eta zuzendaritza horrek kudeatuko du dagokion prozedura ere.

IX.- Europar Batasunaren aurreko izapideak

Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzen programak ez du inolako laguntzarik jasotzen Europar Batasunarengandik, ez baita aztertu programa Europako Gizarte Funtzarekin (EGF) finantzatzeko aukera.

Halaber, ez dago Europako Batzordeari proiektuaren xede den dekretuan araututako dirulaguntzen programaren babesean seme-alabak dituzten familiei laguntzeko ematen diren dirulaguntzen berri eman beharrik, horiek ez direlako sartzen estatu-laguntzen artean, Europar Batasuna eratzekeo Itunaren (EBI) 87.1 artikuluekin bat.

Hori guztia kontuan hartuta, ez da Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egiteko beharrik ikusten.

Aurrez adierazitako guztiagatik, eta eman zaizkigun eskumenak baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENA: «Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko Dekretu-proiektua» lantzeko prozedura hastea.

BIGARRENA: «Seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko Dekretu-proiektua» egiteko prozedura presazkoa dela adieraztea.

HIRUGARRENA: Organo arduradun izendatzea Familia eta Haurren Zuzendaritza lehen aipatutako Dekretu-proiektua egiteko, baita dagokion prozedura bideratzeko eta izapidetzeko ere.

LAUGARRENA: Hasteko agindu hau argitaratzea ezagutza partekatuko LEGESAREA lankidetzagunean; hemen: <http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>-, Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren abenduaren 12ko 132/2017 Ebazpenaren lehenengo apartatua (4. puntua) xedatutakoarekin bat etorritik. Ebazpen horren bidez, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren aplikazioari buruzko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen da.

BOSGARRENA: Araua egiteko, araua egokia eta legezkoa dela bermatzeko eta dauzkan helburuak hobetzea lortzeko beharrezkotzat jotako txostenak eskatzea eta azterketak eta kontsultak egitea.

SEIGARRENA: Prozedura «TRAMITAGUNE» aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin bat etorritik: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozedurako izapidetze-jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren prozedura jakin batzuen izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

ZAZPIGARRENA: Prozeduran zehar sortuko den garrantzi juridikoko informazio guztia aktiboki argitaratzea, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) ezartzen duenarekin bat.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 14a

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ